


Gure enpresak eskaintzen duen zerbitzua, Durangaldean bizi diren aniztasun funtzionala duten haurrei (4-8 urte) eta horien familiei zuzenduta dago. Gure ikasketak oinarri hartuta eta ikasitakoa aplikatu ahal izateko aipatutako adin tartea aukeratzea erabaki dugu. Aniztasun funtzionalari buruzko kontzientziazioa eta informazioa eskuratu nahi duten haur txikiak dituzten familientzako, inklusio hori bermatzeko bezero garrantzitsuak izango dira baita ere.

Aniztasun funtzionalik ez duten pertsonen parte hartzea bultzatzen dugu ere, gizarte integralago eta inklusiboagoa lortzeko asmoz.

[PLAN PARA LA PARTICIPACIÓN Y CALIDAD DE VIDA DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD EN BIZKAIA. 2021-2023](#) dokumentuaren arabera, Bizkaiko 67.000



persona inguru aniztasun funtzional motaren bat dute, hau da, Bizkaiko biztanleriaren %5,8a. Honen arabera, kalkuluak atera ditugu eta Durangaldea, 5.500 pertsona inguru aniztasun funtzionala daukatela kalkulatu dugu. Horietatik asko, haurrak izango dira. Horregatik Durangaldeko haurren aisialdia bermatu nahi dugu, haur guztiek aukera izan dezaten aisialdi duina edukitzeko.

Laburbilduz, taula honetan azalduko ditugu gure adin tartea aukeratzeko arrazoiak:

ADIN TARTEA	ARRAZOIA
0-3	Oso txikiak dira oraindik kontzeptu zailak ulertzeko nahiz eta inklusioa ere landu daitekeen jolasen bitartean. Oraindik ez dute munduari buruzko kontzientzia eta inpultsiboki jokatzeko dute haurrak. Gainera ez dute hitz askorik egiten, beraz gure helburua lortzeko zaila izango litzateke.
3-6	Kontzientzia garatzen dabilta eta munduan gertatzen diren gauzez ohartzen dira. Momentu egokia da inklusioa bezalako baloreak ikasteko eta normaltasunez ikusteko aniztasun funtzionala duten pertsonak. Elkarrekin jolasteko ariketa desberdin asko egin daitezke eta elkar lagunduko dute.
6-8	

8-12	Oso jolas desberdinak erabiltzen dituzte harremanak sortzeko, nerabezaroan sartzen daude eta beste interes batzuk dituzte buruan. Oso zaila da askoz txikiagoak diren haurrekin jolasak koordinatzea.
<12	

Durangotik gertu bizi garelako eta gure bulegoa bertan izango dugulako Durangaldean bizi diren aniztasun funtzionala duten haurrekin lan egitea erabaki dugu. Honekin batera, gu gure enpresan bertan presente egotea ezinbestekoa iruditzen zaigu, hurbiltasuna lortzeko eta bezeroekin harremana edukitzeko edota sortzeko. Durangaldean biztanle asko daude eta bezero nahiko izan ditzakegula uste dugu. Etorkizun batean, gure zerbitzuaren erabiltzaile kopurua handituz gero, beste hainbat bulego zabalduko genituzke Bizkaiko beste hainbat eskualdeetan, hala nola, Lea-Artibai edota Arratia.